

HITZAURRE

Erljio-Guduak ez dira bukatu. Baiñan Erljio-Guduek kalte gaitzak ekarri dizkiote Gizadiari ; eta, hau jakinda, tamalgaria litzake Guruzadetara berriz jotzea.

Dogmakeria ez da itzaldu. Era desberdiñetan han eta hemen piztutzen da : jazkeraz beste, funtsez bakarra eta betikoa. Dogmakeriak ematen duen barne-lasaitasuna ez baitute batzuk aisa galdu nahi.

Gaur gure artean, eta orain dala mende erditsu Europa guzian, „sozialismo” eta „zientismo” ideien atzean izkutatu zan Erljio-Guduen nahi sakona. Burgesiak ahal zuenik eta okerenik jokatu zuen, bere nagusikeriari eutsi nahiz. Eta bi makurrerietatik kalte izugarriak sortu ziran : gizona bi alderdietatik izan zan zapaldua.

Garai illun haiek, halere, pasatzen hasiak dira ; eta burugabekeria litzake geuk ere lehengo bideetara jotzea. Ez genuke burubiderik erakutsiko, eta kontuan hartu dugu aspaldidanik.

Liburuetan finkatzen dan dogmakeria alde batera utzirik ere, Kondaira-jarraipideen dogmakeria sor diteke. Alegia : guk Viet-Nam'ek bezela jokatu behar dugu, guk Kuba'k bezela jokatu behar dugu, eta abar.

Ez horrelakorik. Guk GEURE BIDEA aurkitu behar dugu.

Teoriak baiño nahiago ditugu egiñak. Alde huntatik argi eta garbi diogu, jarraipide nahi-ta-ezkorik inun ikusi gabe, gure itzaropenik haundienak Belgrado'n eta Praga'n daudela.

Batzuen ustez hiri eta erresuma horietan hain zuzen „errebisionismoa” dago. Zeri buruz, ordea ? Teoria batetik berezi ala, gertatzen gera teoria horri buruz errebisionista. Belgrado'ko eta Praga'ko „errebisionismo” hori, beraz, bost axola zaigu guri : guk sozialismo mota horren jokabide asko ontzat ematen dugu, eta „errebisionista” ez diranetan jokabide gutxi.

Askatasuna eta autojestioa dira sozialismoaren giltzarria ; dogmakeria eta burokrazia baitira zanpaketa „gorrien” iturburua. Gure Euzkadi sozialismoan nahi genuke, eta sozialismo hori askatasunean, autojestioan eta federalismoan.

Gure nazioa bere buruaren jabe ez dala inoiz ahaztu gabe, lehendabiziko pausua Euzkadi inperialismotik jaregitea dala inoiz ahaztu gabe, geroari buruz gizonaren zerbitzutan dagoen sozialismo berri horren billa ari gera gu ere, Praga'n bezela, Europa'ko gazteria eta ezkertar intelektual-sail osoa bezelaxe.

BRANKA'k